

**570/2026 EBAZPENA, apirilaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ohiko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzeko.**

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 11. artikulua ezartzen duenaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari dagokio mailaketarako ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea. Dekretu horien bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta lanbide-heziketako langile sanitarioen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen lanbide-garapena arautzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez, arautzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalen 2025eko ekitaldiari dagozkion lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskabideak eta ebaluazio- eta esleipen-prozedurak, bai eta deialdiak arautzen zituzten ebazpenek eskatzen zituzten sartzeko baldintzak betetzen ez zituzten profesionalen 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldiei dagozkienak ere.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenak agintzen du argitaratzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ohiko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, ohiko deialdian bertan ezarritako epean behin-behineko zerrenda argitaratzearen aurka egindako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko da, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira.

Aurreko guztiagatik, eta emandako ahalmenez baliatuz, hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.** - Onartzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez argitaratutako deialdian parte hartu duten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda, ebazpen honen eranskinetan jasotako zerrendaren arabera:

I. eranskina: Ohiko deialdian onartutakoen behin betiko zerrenda.

II. eranskina: Ohiko deialditik kanpo utzitako eskabideen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita.

**Bigarrena.** - Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 1a.



 **Osakidetza**  
Josune Retegi Ormazabal  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Izpta.: JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIA**